

IRITZIA

Ixidor Solupe

ERREPORTAIA

Igandean,
hilak 8, elizako
lanen inaugurazioa

KALE INKESTA

Gustatzen al zaizu
elizaren itxura
berria?

GEHIGARRIA

Baserritik kale
zulora

KIROLA

Egoitz Morak
brontzea lortu du
Espainiako judo
txapelketan

BARDREN

1997ko ekainaren 6a
V. urtea - 197. zenbakia

E L G O

S T E K A R I A



Eliza zaharra
itxura berriarekin

“Gauza bat zenbat eta gehiago aldatu, orduan eta gehiago eusten dio
Lehenge izateari.” Albeno Korta

MEDIKUNTZA eta KIRURGIA KONTSULTATEGIA ANALISIEN LABORATEGIA

- Metabolismoak eta elikadurak eragindako gora-beherak.
- Haur eta gaztetxoek hazkundera eta koskortzea.
- Gizentasuna. Medikuntza estetikoa.

Cesar G. de Martino
3.500.SS Mediku kolegiatua
Elena Rodriguez Atxurra

Egiguren kalea, BILBO Tel. 20 60

ZEZEN-BIDE

Auto, autobus, kamioi
eta



%10eko
deskontua



Esan eta izan (II)



IXIDOR SOLUPE

Kontzertu ekonomikoaren aldatetaren bidez Euskadiko burujabetasun edo subiranotasun fiskala Europar Batasuneko beste Estatu edo Herrialdeek izango duten bera da. Europar Batasunak bakarrik izango du zeharkako zerga arautzeko gaitasuna, Estatuak diru biltzaile soilak izango dira eta hau da Kontzertuaren bidez Euskadik lortu duena. Zerga zuzenak Europar Batasunak ezingo ditu armonizatu eta, Europako beste Herrialdeek bezala, Euskadik zergak biltzeko eta bere arautegia sortzeko ahalmena izango du. Burujabetasun fiskalaren bidez Euskadik Europar Batasuneko Herrialdeen baldintza berdinetan konpetitzeko aukera izango du.

Baina Europar Batasunean moldatzeko eta moldaketa horren bidez Euskadiren batasuna, Nazio bezala (Euskal Herriko Lurralde desberdinetako hiritarrek horrela erabakitzen badute) eta konpetitibitatea lortzeko hau ez da nahikoa. Gure Aberriak dituen arazoak (langabezia, pobrezia, marjinazioa eta abar eta abar) zuzentzeko beste helburu batzuk bete beharko ditugu eta bereziki hauek:

- Gizakumeen garapen osagaiaren alde lan egin, erakunde demokratikoak eta demokrazia indartu jokaera lagunkide edo solidario baten bidez, bakean, demokrazian eta garapen egokian. Aipatutako hiru helburu horiek (bakea, demokrazia eta garapen egokia) oinarritzko hiru baldintza dira; bakerik gabe

garapenik ezin da lortu, garapen egokirik gabe demokrazia ez da posible eta demokrazia-rik gabe ez dugu luzarorako bakerik izango. Esan daiteke hiru helburu horiek harreman dinamikoa dutela, arlo baten aurrerapenak besteen aurrerapena bizkortuz.

Aurreko lerroetan esandakoa denentzat ondo esana ez badago, gaizki esana ez dago behintzat. Beraz, hona hemen nire ustez oinarritzko hiru baldintza edo hiru helburu hauek betetzeko edo lortzeko euskal gizarteak bultzatu beharko lituzkeen urratsak:

- Euskal presoak Euskal Herrira HURBILDU.

- Bahitutako J.A. Ortega Lara eta Cosme Delclaux ASKATU.

- ETAREN aldetik urte bateko TREGUAREN adierazpena.

- Gizarteko talde behartsuak baztertuko ez dituen gizarte-batasuna indartzeko pakto edo ITUN SOZIAL eta POLITIKOA bermatzen duen garapen ekonomiko orekatu eta lagunkide bat.

- Gernikako Estatutuaren garapen OSOA.

- Burujabetasuna edo subiranotasuna herritarren gain dago, sistema demokratiko baten oinarritzko iturburu bezala. ONARPE-NA eta ERRESPETUA.

- Terrorismoaren biktima guztien eskubidearen ONARPENA eta ERRESPETUA.

- AMNISTIA orokorra eta ETAREN borroka armatuaren UZTEA.

**“Ama amagandik sortu danak maite du ama, lurra, herria. Lurrik gabeko, herririk gabeko, amarik gabeko seme-alabak”
J. A. Artze**

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.



laburpena: xagu, makila eta errauskine jentilak larri dabilta erropa arrunt batzuk lortuko...





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO KONTSEILUA	Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEAK	Mikel Cornejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez
KOLABORATZAILEAK	Irati Agirreazaldegí, Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria, Ion Arrieta, Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Ane Guilló, Jon Gurrutxaga, Antón Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Jokin Martínez, Juan Luis Mugertza, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Ixidor Solupe, Leire Urkidi, Unai Villena eta Julen Zabaleta
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



HBri erantzunez:

Joan den egunean HB alderdiak buzoneatu zuen salaketa dela eta, sarritan ez dakigu adiskidekeria, eragipen trafikoa, arauz kontrako finantzaketa, etab. bezalako gezurrei erantzutea hobe den ala ez. Honelakoetan difamatzea edo iraintzea da errazena, zikinkeria zabalduz, beti geldituko baita zerbait. Idatzi honen xedea ez da gezur horiei erantzuna ematea, gure botoemaile, jarraitzaile eta orohar, herritar guztiak lasaitzea baizik.

- Lehenengo eta behin, EAJ-PNVk jasotzen duen diru bakarra Elgoibarko Udalean duen ordezkari-tza politikoarengatik dela esan behar dugu.

- Udalak egiten dituen langilego kontratazioak arau batzuek zuzentzen dituzte. Guk, EAJ-PNVk, zentzu honetan izan daitezkeen irregulartasunak dagokien organuetan sala ditzatela eskatzen dugu.

- Lanen esleipen edo adjudikazio guztiak legezpean egin dira. Beraz, ez da gure ardurakoa inoiz gure alderdiaren afiliaturen baten eskaintza hobia izan bada. Merkatu librearen alde gaude.

Salaketaren egileek ulertu behar dutena besterik da: herri txiki batean bizi garela eta bertako herritarren zatitxo baten ordezkari baino ez direla, beren burua panfletoetan Elgoibarko ahots bakartzat aldarrikatzen badute ere. Gure herriko jendearen gehiengoa ezin da errezelupean egon MLNVren koordinadetan ez egoteagatik.

Honez gain, begibistakoa da ez dutela arretarik jartzen edo iparra galdua dutela. Hau guztia gertatu zela esaten badute, nola ez zuten bada zegokion unean salatu? Zertan egon dira orain arte? Horrenbeste lan eman al die martxoaren 7ko greba arrakastatsua? Agian, diskurtso politikorik ezean, izorratzeko gogoia besterik ez da.

EAJ-PNVk ez du legez aurkako pezetarik jaso eta susmoak baleude tribunaletan sala ditzatela. Kontzientzia lasai daukagu, gure egitasmoan ilusioz beterik darraigu lanean

eta horren lekuko lau urteoro herritarren babesa neurtzen duen termometroa dugu; eta honek hain zuzen ere, min ematen die.

Bukatzeko, eskertzekoa da oraingo honetan salaketak paperean egin izana, eta ez beti egin ohi duten bezala, gure etxeetako hormak zikinduz.

Elgoibarko EAJ-PNV

Eskerrak Pilar ikastetxeko gurasoei

Pilar ikastetxeko Hezkuntza Elkarteak ikastetxeko berriztatze eta egokitze lanetan (aulki-mahaien konponketa eta berriztapenak; frontoiak, hormen eta baranden pintaketak...) aritu diren hainbat eta hainbat guraso, ikasle eta irakasleei eskerrak eman nahi dizkie lerro hauen bidez.

Profesionalek legez egin dute lan eta horren emaitza begibistan dago denon probetxurako.

Bihotz-bihotzez mila esker eta hurrengo ikasturterarte.

Pilar Ikastetxeko Hezkuntza Elkarteak

Eskerrik asko Modesto Mujika zenaren izenean

Lerro hauen bitartez, joan den donostian Finalista Egunaren barruan, Modesto Mujika zenari San Pedron egin zitzaion omenaldian parte hartu zenuten guztioi, bihotzez, eskerrik beroenak luzatu nahi dizkizuet. Lehenik eta behin, eskerrik asko Morkaiko Mendizale Elkartearen zuzendaritzako kide guztiei. Eskerrak baita ere, Haritz Dantzari Taldekoei eta Udala Txistulariei, bereziki azken hauei, Modestoren erretratu benetan polita eman zenedatela. Ekitaldia oso ederra izan zen eta nire esker ona adierazi nahi dizuet egin zenuten guztiarengatik. Eskerrik asko, azkenik, omenaldian parte hartu zenuten herritar guztioi.

Arantza Larrañaga

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

GALDERAK

◆ Herritar batek deitu digu DEBEMENi honako galdera edo proposamena luzatzeko: **“Tijatu al zarete sekula Soraluzeko baserriak (Esozia inguruan bai behintzat) zein txukun eta polit dauden seinalaturik? Baserrien izen, armarrri eta herriaren izena zeramikan landuta azaltzen dira. Ez al dago horrelako zerbait egiteko asmorik?”** DEBEMENetik eman diguten erantzuna honako hau da:

“DEBEMEN elkarteak Deba Beheko bailarako herri guztietan lan egiten du, Soraluzen barne. **Gure lehentasunen artean ez dago seinalizazioa.** Dena den, gure fondeotatik kanpo, gestio ugari egin ditugu subentzioak eskuratzeko, orain arteko ahalginak alferrik izan badira ere. Baserrien seinalizazioa egiteko lehen pausoak eman dira eta **Elgoibarren seinalizazio proiektu bat egin dago. Dirua lortu ahala burutzen joango gara**”.

KEXAK

◆ **Mendizale batek** honako salaketa hau egin nahi du: “Lehengo egun batean **Karakate aldean geundela ertzainak motorrean** zebiltzala ikusi genuen. Karakaten motorrean ibiltzea **debekatua dago.** Ez al lukete beraiak ejenplua eman behar-ko?”

◆ **Emakume batek** kexa hau esateko deitu digu: “Nire etxeko leihoak ibai aldera

ematen du eta bertatik Salbatorearen irudia dagoen tokia ikusten dut. Arratsaldero **bi gizon nagusi Salbatorearen terrazan egoten dira** eta ordu batzuk pasatu ondoren, **biek pixa egin eta alde egi-ten dute.** Benetan zikinkeria galanta iruditzen zait, batez ere horrelako leku batean egitea. Pixa egiteko ohitura horrekin amaitzeko eskatuko nieke bi gizon horiei.”


TXALOAK

◆ Pilar ikastetxeko DBHko 2. mailako ikasleek **Pilar ikastetxeko irakasle eta gurasoak txalotu** nahi dituzte, “hain ikasbidaia ona izan dugulako. Txalo bat baita ere, Guraso Egunean **futbol partiduan aritu ziren guztiei**”. **3. eta 6. mailakoek ere guraso eta ira-**

kasleak txalotu nahi dituzte egindako konponketengatik eta larunbaten antolatu zuten Guraso Egunarengatik.

◆ Guraso batzuk **Herri Eskolako irakasleak eta ikasleak txalotu** nahi dituzte ikasturte amaierako jaialdia hain ondo prestatu eta egin dutelako.

BAI, ESAN?



Jabier Larrañaga
Ikastolako ikasketaburua

Aste honetako telefono deia Elgoibarko Ikastolako **Jabier Larrañaga, Ikastolako Ikasketaburuari** luzatu diogu. Izan ere, Elkarri Giza Mugimendua eta Ikastolen Federazioak ikasleak bake baloreetan hezitzeko akordioa sinatu dute. Ikus dezagun zer den bi erakundeok lortu nahi dutena.

- **Zer da zehazki akordio honen bidez lortu nahi duzuen?** - Ez da akordiorik egon, ez zen hori helburua. Ikastolen Elkarteak, bere ordezkarien bidez, elkarlana egin du eta ados jarri da Unitate Didaktikoak elkarrekin argitaratzeko eta Bakegintzaren Jardunaldiak antolatzeko; hauek joan den hilean burutu ziren Bilbon.

- **Zein da helburu horiek lortzeko erabiliko duzuen metodologia?** - Bake Hezkuntzaren zeharlerroa jorratzea eta lantzea da lan proposamen honen lortu nahi dena. Lehenik eta behin, lanean jarraitu; Unitate Didaktikoen lanketaren ondorioak atera. Iritzi eta ikuspegi desberdinetako lankidez osatutako foro ireki bat osatu mintegi modura lan berriak eratzeko.

- **Nork edo non somatu zen horrelako zerbaiten beharra?** - Bakea ez da gatazkarik ez egotea, gatazka bera bizitzeko era baizik, elkarrizketa, entzutea, justizia, konpromezua, izpiritu kritikoa, honen guztiaren garapena landu behar diren printzipioak, ohiturak dira.

- **Elkarri eta Ikastolen arteko akordioak izan du gaitzespenik. Zer esango zenuke honi buruz?** - Honek aportazio bat gehiago izan nahi du. Ekarpen honek polemika sortzen badu eta honen ondorioz aportazio konstruktibo berriak sortzen badira, hau guztia onuragarria izango da.



1997ko maiatzaren 27an, 95 urte zituela hil zen
JOSE RAMON ARANBARRI “SUKUSU”ren familiak
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



281 urteko parrokia berri

Domekan, ekainak 8, inauguratuko da San Bartolome parrokia. Bost urte iraun dute obrek eta tarte horretan denetik ikusi ahal izan dugu: andamioak behetik gora, elizkizunak arkupeetan... Datozen eguntan bisita gidatuak antolatuko dira herritarrek parrokia goitik behera ikusi dezaten. Era berean, argazki erakusketa ere izango da elizan bertan, lehena eta oraina konparatzen duten erretratuak biltzen dituena. Gaur egun itxura eraberritua erakusten du elizak, ia zuria, baina hau guztia lortzeko lan asko egin behar izan da, eta diru asko inbertitu. Nola edo hala, merezi izan du eta erortzeko arriskua zuen eliza zaharraren tokian, eraiki berria dirudien eraikuntza eder bat ikusten dugu orain. Kanpotik etorritako bisitari batek esan zuenez "zilarrezkoa" dirudi.

Kanpandorretik harri bat erori zenean San Bartolome parrokia-aren egoeraren arriskuaz kezkatzen hasi zen jendea. 1992an eliza inguruko hainbat pertsona elkartu eta bi batzorde eratu zituzten, bata teknikoa eta bestea ekonomikoa. Azterketa desberdinak egin eta gero, diru kontuei ekin zioten. Izan ere, behar-beharrezkoa zen aurrekontuak zehaztu eta zein dirulaguntzarekin kontatzen zen jakitea. Baina, gauza bat eta bestea tarteko, azkenean ez Aldundiak ez Eusko Jaurlaritzak ez zuen diruz lagundu parrokiako obren lehen fasean, nahiz eta Jaurlaritzak arkitektoa bidali, J.M. Encio, besteak beste, Donostiako San Inazio eliza konpondu zuena.

Batzordekideek herritarren artean obrei buruzko informazioa zabaldu zuten eta laguntza eskatu. Jende-

ak ondo baino hobeto erantzun zuen eta guztira 63 milioi jaso ziren, horietatik 11 Udalak eskainiak. Lehen fasea, 70 milioiko aurrekontuarekin, martxan jartzeko prest zegoen. 1994ko irailean hasi ziren obrak eta 1995eko maiatzean amaitu.

Elizaren zutabea eraberritu

Elizako oinarria eta zutabeak oso hondatuak zeuden. Esan bezala, kanpandorretik harri bat erortzea lehen abisua izan zen. Hortaz, beharrezkoa zen lehenbailehen obrak hasi eta goitik behera konpondu eta berrindartzea: teilatu berria, kupula, eskaile-rak... Elizaren egitura osoa, hitz batean. Gainera, hasiera batean egiteko asmorik ez egon arren, gero argia, soinua, pintura eta beste-lakoak ere ikutu ziren. Izan ere, konponketen ondorioz aurretik zegoen instalakuntza are gehiago hondatu zen eta behin lanean hasiz gero, gauzak behar bezala egitea erabaki zuten batzordekideek. 70 milioiko aurrekontua, beraz, ia 100 milioi pta.ra igo zen.

Habeak egurrez ala burdinez

Lehen fase horietan izan zen eztabaida eta eraba-

kiak hartu beharra. Esate baterako, zalantza handia izan zuten egurrezko habeak bere horretan mantendu edo burdinezkoak ipintzeari buruz. Aldundiak egurrezkoak mantendu egin

"400 kiloko 1953. urteko erloju mekanikoa kendu eta elektronikoa jarri da, programatu egiten dena"

behar zirela zioen baina, era berean, sitsak janda zeuden eta garbituz gero ere, ez zegoen ziurtatzerik ondo geratuko ziren. Azkenean, iritzi desber-

Elizak itxura bitxia izan duen andamioz estalita.



dinak jaso eta eztabaida ugariren ostean, batzuk aldatu eta burdinezkoak jarri zituzten eta beste batzuk, arte aldetik ederrenak zirenak eta ondo zeudenak, bere horretan mantendu ziren. J.M. Encio arkitektoaren zuzendaritzapean egin dute lan BRUES enpresakoek eta, ahal izan den neurrian, aurrez zegoen materiala eta itxura mantentzen saiatu dira.

Langileek sokekin lotuta egin behar izan zuten lan, erortzeko arriskua baitzegoen. Izan ere, obrak hasi aurretik, desinfekzio enpresa bateko langile gazte bat 15 m.ko altuera zuen zulo batetik erori eta mokorra puskatu zuen. Elizaren egoera benetan kezagarria zela eta, obrak lehenbailehen egin behar zirela gauza nabarmena zen.

Kanpandorrea

1996ko abuztuan andamioz jantzita ikusi ahal izan genuen parrokia. Bigarren faseari hasiera eman behar zitzaion, kanpandorrea konpondu eta fatxada garbitu beharra zegoen. Kanpandorrea dekoratzen duten hari batzuk apurtuta zeuden, solte, ha-

rriak eusten zituzten kableak etenda... Eraberritu eta beharrezko konponketak egin ziren horietan guztietan. Kanpaiak dago-kionean, berriz, bueltak ematen dituzten kanpaiak ala elektronikokoak jartzea izan zen zalantzarik handiena. Azkoitin elektronikokoak jarri zituztela eta haiek nola jotzen zuten entzutera joan ziren batzordekoak. Inori ez zitzaion gustatu zein soinua zuten eta, azkenean, Santander aldeko konpontzaile batzurekin harremanetan jarri ziren eta bueltak ematen dituzten kanpaiak jartzea erabaki zuten. Betikoak. Martxoaren 16an kanpaiak entzun ahal izan genituen azken 7 urteotan ixilik egon eta gero.

400 kiloko erlojua

Bestalde, San Bartolome parro-

kian azken urteotan 1953an jarritako erlojua zegoen martxan, erloju mekanikoa. Astero-astero, Patxi Osorok ematen zion erlojuari ukitua honek behar bezala funtzionatzen jarrai zezan. Baina, obren ondorioz bere tokitik atera behar izan da 400 kilo pisatzen dituen erlojua eta haren ordez berria jarri da, elektronikoa, aurrez programatuz funtzionatzen duena, puntual-puntual eta inolako ukiturik eman gabe. Zaharra elizan gordeta dago, ikusi nahi duenarentzat aukeran.

Ia bost urte luzez iraun dute elizako berritze obrek. Kanpotik ikusita gaur egun inork ezin dezake esan gauzak aldatu ez dire-



Urtean poderioz, elizako irudien egoera kaskarra zen.

nik. Izan ere, bigarren fase honetako azken lana elizaren fatxada garbitzea izan da. Horretarako ura eta hondarra erabili dituzte eta emaitza bistan da, sekula baino zuriagoa ageri zaigu Foruen enparantzan San Bartolome parrokia.

“Hirugarren fasean elizako lokalak eta sakristia egokitu nahi dira”


Halere, oraindik geratzen da zereginik. Izan ere, batzordekideek esan digutenez, hirugarren faseari ekin nahi diote ahal bezain pronto. Elizako lokaletako teilatua eta lurra berrituta daude baina horiek egokitu eta erabilpena eman nahi bazaie, gauza gehiago egin beharko da eta sakristia ere txukundu nahi dute.

Bigarren fasean Aldundiak aurrekontuaren %25a jarri du eta herriko enpresek ere diruz lagundu dute, herriarrez gain noski. Guztira 45 milioi pta.ko kostua izan dute bigarren faseko obrek.



Lehen fasean, elizkizunak eliz-atarian egin ziren.

Gustatzen al zaizu elizaren itxura berria?



ANGEL AGIRREGOMEZKORTA
50 urte, teknikoa

Asko. Lehenguan aldian askoz hobeto dao, garbixaua ikusten da, berri itxuria daka. Neretzat merezi izan dau obrak eitxia.




LAURA NIETO
16 urte, ikaslea

Bai, gustatzen zait. Lehen zikina zegoen eta orain askoz hobeto geratu da, kanpokoa behintzat. Barrukoa oraindik ez dut ikusi.



JESUSA OÑEDERRA
75 urte, jubilatua

Bai, oso ederki laga dabe. Lehengo aldian katedral haundi hoién modukua ematen dau. Bai barrutik eta bai kanpotik asko gustatzen jata. Merezi zaban.



ANTONIO CORDÓN
43 urte, espezialista

Bai, oso ondo geratu dela uste dut. Lehen ere gustatzen zitzaidan baina orain hobeto dago, garbiago. Gehiago ikusten dela ematen du.



ALEXANDER CALVO
16 urte, ikaslea

Bai, ondo dao baina piska bat artifiziala ikusten da. Lehen ere ez zauan ondo ze oso zaharra danez jausten zauan baina ez zan hainbeste aldatu bihar itxuria.



ANABEL SANTAREN
30 urte, etxeokandrea

Lehen gehiago gustatzen zitzaidan. Niri berez zahar itxura duten gauzak gustatzen zaizkit. Elizari gehiegi igartzen zaio berriitu egin dutela.

Inazio Bereziartua

Instrumentuak, dantza, lengoia musikala, kantua eta musika tailerra (5-6 urte).

Musika zaletuentzat edo ikasi nahi duten

MATRIKULA

Izen-ematea: ekainaren 2tik 13ra *

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 5etatik 8etara *

Elizaren berriztatzea: bost urteko lanak

La bost urte ibili gara lanean Parrokiako obren bueltan hainbat lagun. Borondate onenarekin aritu gara, batzuk batzorde teknikoan eta beste batzuk ekonomikoan. Gure asmoa, elizak zituen beharrei aurre egitea zen, urte asko tente iraun duen eliza behera erori aurretik behar bezalako konponketak eginenez.

Barrutik hasi ginen. Lehenik eta behin elizaren zutabeak konpondu behar ziren, apurtuta zeudenak berrituz, solte zeudenak ertsiz, dena margotuz, garbituz, argi berriak jarritz, soinua hobetuz... Lan asko egin da urte hauetan gutzietan.


Bigarren fasea izan da jendearentzat espektakularrena. Izan ere, hainbat hilabetez garbitzen jardun eta gero, eliza berria daukagula dirudi. Ura eta hondarra erabili dituzte parrokiako kareharria garbitzeko. Kareharria organikoa da eta bere azala ere kendu egin diote, ia-ia okela bizian utziz harria. Horregatik ikusten da hain zuri, batzuei besteei baino gehiago gustatuko zaien kolorearekin. Urteek aurrera egin ahal, hezetasuna, haizea eta kutsadura berriz ere poliki-poliki hormaren kolorea iluntzen joango dira.

Halere, inork ez digu ukatuko inguruetako elizarik ederrenetarikoa daukagu-

nik. Lana geratzen da egiteko. Parrokiako lokalak egokitu nahi genituzke eta sakristia txukundu. Baina aurrerago ekingo diogu asmo horri.

Hori bai, urte hauetan jendearen laguntza ezinbestekoa izan da. Diruz lagundu dute, interesa eta ilusioa jarri dituzte eta pozik azaldu dira egin diren aldaketekin. Eliza kulturaren parte da, eta beharrezkoa da herritarrek kultura maitatzea, mantentzea nahi bada. Batzordearen izenean, mila esker era batera edo bestera lagundu duten herritar guztiei.

**Elizako
Lanen
Batzordea**



ISPILUA- BERI DEGIRA



*Jose M.
Rodriguez*

Pintorea

- **Kolore hotz bat?**
- Horia.
- **Pasioa sortzen duen kolorea?**
- Gorria.
- **Kolore erlaxante bat?**
- Berdea.
- **Kolore zikin bat?**
- Marroiak.
- **Sekula erabiliko ez zenukeen kolorea?**
- Guztiak erabiliko nituzke, tokiaren eta momentuaren arabera.
- **Zer itoko zenuke amoniakotan?**
- Inbidia.
- **Zein kolorez margotuko zenuke etorkizuna?**
- Berde argiz.
- **Eta zein koloretakoa ikusten duzu?**
- Berde iluna.
- **Naturaren elementurik koloretsuena?**
- Egunsentia.
- **Bikote batean beti egia esan behar al da?**
- Bai, oinarrizkoa da.
- **Ba al dakizu ordenagailua erabiltzen?**
- Defenditzen naiz.
- **Gizartea aurrera ala atzera doa?**
- Gauza batzuetan atzera. Esaterako, armagintzan beharrean, dirutza hori guztia osasunerako ikerkuntzan gastatu beharko litzateke.
- **Asmakizunik onena?**
- Osasunarekin zerikusia duen guztia.
- **Zein erosotasuni egingo zenioke uko errezan?**
- Elektrodomestikoei: telebista, garbigailua...
- **Zein pribilegio eduki nahi zenuke?**
- Nahiko pribilegiatua naizela uste dut.
- **Etxeko txokorik gustukoena?**
- Sala.
- **Zenbat ordu egiten dituzu lo?**
- Zazpi.
- **Zenbat urte nahi zenuke bizitzea?**
- Nere kabuz moldatzeko naizen bitartean, ahal beste.
- **Zer da zorientasuna?**
- Bizitzan dituzun helburuak betetzen joatea.

● Errotaxoren zozketaren zenbaki sarituak

Joan den larunbat gauean antolatutako herriko artisten lanak zozketatu zituzten Errotaxoko kideek. Zortzi sari dira guztira; beraz, zortzi dira zenbakiak. Tik-Tak dendako eskaparatean agertzen dira lanak bakoitzari dagokion zenbakiarekin. Sariak jasotzeko Tik-Tak dendatik pasa daiteke. Hona hemen saritutako zenbakiak eta erretserbakoak:

- 1- 4.477
- 2- 3.785
- 3- 4.149
- 4- 4.533
- 5- 0.077
- 6- 4.986
- 7- 2.330
- 8- 3.611

Erretserbako zenbakiak:

- 1- 0.033
- 2- 1.447
- 3- 0.428
- 4- 2.557

● Jaietan txoznak jartzeko baimena

Udal Kultura Batzordeak bidalitako ohar batean San Bartolome jaietan txoznak jarri ahal izateko baimena eskatzeko epea ekainaren 20an amaitzen dela jakinarazten da. Epez kanpo aurkeztutako eskaerak ez dira aintzat hartuko. Udal Kultur Batzordearen ordutegia goizeko 11etatik ordu batera bitartekoa da.

● Jaietako kartela hautatzeko lehiaketa

Udal Kultura Sailak San Bartolome jaietako egitarauko kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Lan guztiek A2 neurria izango dute eta uztailaren 7an beranduenez aurkeztu beharko dira Kultur Etxean. Lehen saria 50.000 pta.koa da eta sari berezi bat eongo da 15.000 pta.koa. Interesatu guztiek Kultur Etxean eskura ditzakete lehiaketaren oinarriak.

Elgoibartar gaixoak eta laguntzaileak Lourdes-ko erromesaldian

Duela bi asteburu Elgoibarko dozena bat lagun eta lau gaixo Lourdes-en izan ziren lau eguneko egonaldian. Erromesaldi hau Donostiako Eliz Barrutiak eta Gaixoen Lourdes-ko Ospitalitateak antolatzen du. Erizain eta kamilero gisa ibili dira elgoibartar hauek eta era guztietako gaixoekin egin dute lan. Herriko gaixoez, berriz, beste herrialde batzuetako gaixoez el-

karbitzeko aukera izan dute. Esther Mugerzak, Lourdes-ko Ospitalitatearen ordezkari elgoibartarrak kontatu digunez, “esperientzia oso polita izan da. Goizeko 5:30etan lanean hasi eta gaueko 10ak arte zeregin ezberdinetan jardun dugu. Neka-neka itzuli gara baina barrutik indarberrituta”. Berak esan digunez, argazkiko elgoibartar batzuek, urte mordoan daramate Lourdes-era joaten.



Pilarreko 6. mailako mutilak, Gipuzkoako txapeldunordeak areto futbollean

Pilar ikastetxeko alebiren futbol aretoko mutilak Gipuzkoako eskolarteko jokoez bigarren geratu ziren Donostian jokatu zuten finalean. Aurreko partiduetan ondo ibili arren, finalean ezin izan zituzten aurkariak gainditu. Pilarreko 6. mailako mutilak, Gipuzkoako txapeldunordeak dira, beraz. Argazkian makurtuta, Andoni Smidh, Andoni Armendia, Jon Membrillera, Andoni González eta Garikoitz Osoro. Zutik, Ro-



berto Ruiz entrenatzailea, Iñigo Canales, Haritz Calvo, Jorge Feijoo entrenatzailea, Carlos Feijoo, Jorge Dieguez eta Jose Angel Calvo ordezkaria.




Ikastolako eta ikasle ingelesen arteko elkartrukea

Ikastolako eta Liverpooleko ikastetxe baten arteko elkartrukea dela medio, 11 ikasle ingeles Elgoibarren izan ziren 15 egun pasatzen. Argazkian, Ikastolako 2. BBBko ikasleak eta Liverpooleko 11 ikasle ingelesak BARREnera egindako bisitaren ostean.



Herri Eskolako ikasleen jaialdia

Herriko Antzokia jaigune bihurtu zuten joan den ostiral arratsaldean Herri Eskolako ikasle eta irakasleek. Ikasturte amaierako jaialdia izan zen bertan. Ordu eta erdi iraun zuen ikuskizunean 2 urtetik hasita, 6. mailara bitarteko ikasle guztiek euren artista sena erakusteko aukera izan zuten. Argazkian "Hamelingo xirularia" antzezlanaren unea.



Gestio Eskolako ikasleen proiektu aurkezpenak

Joan den ostiral goizean, Gestio Eskolako bi ikasle taldek karrera amaierako proiektuen aurkezpenak egin zituzten. Lehenengo, pintxoak egiteko enpresa baten proiektuari buruzkoa zen (argazkian) eta, bigarrena, bidaia agentzia bati buruzkoa.

● Sinadura bilketa pobreziaren aurka

Elgoibarko giza elkarte ezberdinak sinadurak biltzen ari dira Eusko Legebiltzarrari langabezia eta pobreziaren aurkako legea egin dezan eskatzeko. Euskal Herri osoan 30.000 sinadura lortu behar dira Gizarte Eskubideen Gutunaren Aldeko ekimena aurrera atera dadin. Euskadin 250.000 langabetu daude gaur egun. Horietatik 180.000k ez du INEMetik ezer kobratzen eta 90.000 lagun iraupen luzeko langabetuak dira. Ekimen honetan zera eskatzen da: ordu estrarik ez, lanaren banaketa, pertsona orok duen oinarrizko errenta jasotzeko eskubidea errekonozitzea eta duintasunez bizi ahal izateko beharrezkoak diren diru sarrierak garantizatzea.

● Udako Euskal Unibertsitaterako dirulaguntzak

Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako XXV. Udako ikastaroetan parte hartzeko dirulaguntza emango die Elgoibarko Udalak ikasle eta langabetuei. Laguntza, matrikula osoa ordaintzeko izango da. Informazioa Udaleko Euskara Zerbitzuan (74 43 66).

● "Toma y daca" programarako deialdia

ETB2 kateko "Toma y daca" programako arduradunak hilaren 13an izango den saioan parte hartzeko jende bila dabilta. Gaia "Estetikak akonplejatu ala lagundu egiten digu" izango da. Uste batekoa zein bestekoa izanik eta programan parte hartu nahi izanez gero, Kultur Etxeko 74 21 58 zenbakira dei daiteke hilaren 11n beranduenez.



Guraso Eguna Pilar ikastetxean

Joan den larunbatean Pilar ikastetxean Guraso Eguna ospatu zuten. 300 bat lagun bildu ziren denera. Goizean bi futbol partidu jokatu ziren guraso eta ikasleen artean eta bietan guraso-irakasleek irabazi zuten. Ondoren marrazki, pilota eta tarta lehiaketako irabazleei sariak banatu zitzaizkien eta eguerdian bazkaria izan zuten. 230 lagun elkartu ziren mahai bueltan. Arratsaldean karaokea, jolasak, gaztelu puzgarriak, tailerrak, bingoa, tonbola, etab. antolatu zituzten eta afaria ere bertan egin zuten. 200 lagun geratu omen ziren afaltzera eta goizaldeko 12:30ak arte luzatu zen jaiak.

● **Azkoitiko errepide zaharra konpondu egingo da**

Elgoibartik Azkaraterako lehen 880 metroak konpontzea onartu du Aldundiak. Lehenik eta behin, beharra dagoen tokietan blandoi eta zoladurak konponduko dira eta, ondoren, seguritate hesiak, hormigoizko entrezintak eta hormigoizko bide bazterrak handitu egingo dira. Era berean, errepidean zehar dagoen seinalizazio horizontala berriz jarriko da. Obrek 22 milioi pta.ko aurrekontua dute, Aldundiak ordainduko dituelarik.

● **Anbulantzia medikalizatuak**

BARRENEk aurreratu zuen bezala, aurrerantzean zonaldeko ambulanziaz medikalizatuak Elgoibarraren izango du egoitza. Kokapena San Antolinen izango da, Usatorre tabernaren ondoko lokalean, eta bertan, medikua eta erizaina egongo dira 24 orduz. Haien beharra izanez gero, SOS DEIAK-eko 088 zenbakira deitu behar da.

Igeriketa zerbitzurako inor aurkezten ez den hirugarren aldia da

Joan den astean eman genuen Kirol Patronatuko Igeriketa eta Aerobic zerbitzuen oinarrien berri. Eskaintzak aurkezteko epea amaitu da eta aste honetan bertan ireki dituzte plikak. Aerobic-erako bi pertsona aurkeztu dira. Igeriketa zerbitzuari dagokionean, berriz, inork ere ez du izenik eman, hortaz, oinarriak errebisatu eta litekeena da laugarren aldiz egitea deialdia.

Patronatuko zuzendaria den Ramon Mujikak esan digunez, "igeriketa zerbitzuaren barruan sorospena eta ikastaroak sartzen dira eta horien gatik 6 milioi pta. ordaintzen da. Lana hiru pertsonen artean banatuz gero, bik 6 orduko lanaldia egin dezakete, batako goizez eta besteak arratsalde, eta hirugarrenak, asteburuko txanda". Igeriketaz gain, es-

kalada, multikirola eta tenisa ere sartzen dira zerbitzu berean. Azken hauek urte osokoak ez direnez, antolatzen direnean, sarreraren %75 jasoko lukete monitoreek. Kopuru horiei langileek ordaindu beharko luketen autonomo kuota, BEZa eta IRPFa kendu behar zaie. Lehenengo deialdian 3,5 milioi eskaini zituzten Patronatuak eta bigarreanean 4,5 milioi pezeta.

Ekain bukaera aldera elkartuko da Patronatua eskaintzak aztertu eta erabakia hartzeko.



artxiboa

Igeriketa zerbitzuan sorospena eta ikastaroak sartzen dira.

TXURI BELTZ
 Taberna
 San Franzisko 38

ANCHUSTEGUI S^a
ZERAMIKAK
 Erakusketa eta bulegoa: Antonio Arrillaga, 6-8
 Biltegia: Arregitorre, 10 - 14 behea
 83 Postakutxa
 Tel. 74 33 44 - 74 06 92
 Fax 74 37 11
 Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
 Gipuzkoa


MEKANOSA
 Errosario 30
 tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Truk
 San Frantzisko, 27
 Tel. 74 26 21



Udaleku irekiak

Atxutxiamaikarekin
astelehenetik ostiralera



Eskolaurreko 1-2-3

ekainak 30 - uztailak 11

10:00 - 12:00

Prezioa: 2.500 pta.

Irteerak, jolasak, eskulanak, abestiak, sorpresak, ...



1-2 mailak

ekainak 30 - uztailak 11

9:30 - 12:30

Prezioa: 2.500 pta.

Irteerak, San Fermin txiki eguna, jolasak, ...

3-4 mailak

uztailak 7-18

9:30 - 12:30

Prezioa: 2.500 pta.

Mendi irteerak, hondartzara txangoa, malabarak,
San Fermin txiki, kamiseta tintaketak, ...



IZENA EMATEKO

Ekainaren 9tik 13ra

ELGOIBARKO IZARRA K.E. (Ubitarte 4)

Tel.: 74 16 26

ANTOLATZAILEA: Elgoibarko Izarrako ATXUTXIAMAIIKA Begirale Taldea

LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala eta Eusko Jaurlaritza

SABIN OREGI:

"Boluak hildakuak bezela dia, ahalik eta azkarren eman bihar jakue lurra"

64 urte dituen soraluzetar honek 40 urte daramatza Elgoibarren, ezkondu zenetik. Boluak beti izan ditu afizio eta sekula txapelketatan ibili ez den arren, federatuta inoiz egon ez bada ere, joan den larunbatean omenaldia egin zioten. On-do merezitako omenaldia. Sabin Oregik erakustaldi ederrak egin izan ditu bizitza osoan herri eta auzoetako bolatokieta. Bere esku azkarra eta hanka azpitik botatzeko gaitasuna, oraindik ere gogoratzen dituzte bolazaleek.

- 7 urterekin hasi zinen bolotan.

- Bai. Plaentxiako San Inazio auzoko Edurdun baserrixan zaken bolatokixa baina saltzia pentsau zebe. Gu kuadrila gazte bat ginan eta danen artian, pagia juntu eta bolia eta hiru txirluak erosi genitxun 7 pta. eta erdixan. Haura izan zangure entretenimentua handik aurrera.

- Gaur egun estalitako bolatokiak daude.

- Bai, baina gehixenak hutsik. Oin ez dao lehengo afiziu. Gu, eurixa eitxen

zabarian ere, burutik behera zakua jantzi eta lokats artian ibiltzen ginan boluetan.

- Ume hasi eta gaztetan maisu izango zinen, ez?

- 14 urterekin ondo ibiltzen nitzan. Halere, sekula ez naiz torneuetan ibili.

- Zergatik hori?

- Torneuetara juten zera eta arratsalde guztian lau bola botatzen ditzuzu. Larogeitaka lagun juten dia eta ez da disfrutatzen. Nik nahixo nabari jun, bola asko bota eta jolasian disfrutatzia. Oin damututa nao, nere kapazidadiakin torneuak irabaziko nitxuan eta beste historixa bat eukiko nabari, baina...

- Zein trikimailu erabiltzen zenuen?

- Boliari hildako bati eitxen jakona ein bihar jaku: lurra azkar eman. Nik ola mutur-muturrian jo eta lurra segitxuan ematen nion boliari, indarrakin.

- Tiradako hainbeste ordaindu behar omen da.

- Bai, bolako. Gero, gehixen joten dabanak jaso eitxen dau dirua. Neri pasau izan jata gazte batekin jardun eta azkenian erdibana eitxeko eskaini. Estimaten zebe. Gazte harek oin neri beste horrenbeste eitxia gustauko jatan.

- Hanka azpitik, ezkerrekin...

- Bai, danetik eitxen nabari nik. Trabesa eitxia gus-

tatzen jatan, apostua. Nereztat trabesa eitxia motibaziua zan, seguridade gehixokin jotzen nion boliari. Baina, zela nahiko ondo botatzen nabari, askotan jendiak ez zabari nahi izaten nerekin trabesik eitxia. Orduan, hanka azpitik botako nabala esaten niuen, edo ezkerrekin. Batzuetan txirluak botatzen nitxuan eta beste batzuetan ez. Baina kontua jokatu eta disfrutatzia zan.

- Anekdotak ugariz izango dituzu.


- Bai. Lengan ere batek esan zian zela egun batian, Eibarko bolatokixan 35 soziok bota eta batek bakarrik jo zabari. Jun nitzan ni eta bata bestian atzetik bota eta gero, hanka azpitik hasi nitzan, eta orduan ere asmatu.

- Esku ona.

- Bai, garbi esanda nik pentsatzen dot Jaungoikuak abilidade gehixegi eman ziala boluetan irabazteko. Abilidade gehixo eman zian eskuan buruan baino.

- Gustura omenaldiarekin?

- Bai, usten dot merezi baino gehixo nahi diela. Berrez ez jatan tokatzen ez naiz sekula federauta egon eta. Baina, boluetan hainbeste ibili, irabazi eta espektakua emandakua izanda, merezi nabala esan zian eta, gustura nao. Asku estimatzen da.



Belarra mozteko garaia da

Aurten belarra mozteko garaia aurreratu egin da. Arrazoia? Negu on eta lehorra egin duela. Horrelakoetan, haizeak belarra lehortu egiten du eta belarra hazi beharrean, txikia geratzen da, punta iharrarekin. Horregatik, negu epelaren ostean, belarra apirila aldera mozten hasten dira baserriar gehienak, hurrengo haziko den belarra freskoa eta ona izan dadin. Ekaina erdi aldera bigarren belarra mozteko garaia da.

Gaur egun segadorarekin mozten da belarra.



Sega hartu, gerriari buelta eman eta besoez di-da belarra mozten zen garaia atzean geratu da. Segai haien orde, segadorak erabiltzen dituzte egungo baserriarrek, askoz azkar eta arinagoa delako.

Segadora desberdinak daude. Belarrekin bolak egin nahi dituztenentzat segadora bereziak daude, belarra alboetara uzten dutenak eta gero biltzen joaten direnak. Makinaz egiten dira bolak eta badaude plastikoa jartzen duten makinak ere.

Belar-zuloak

Halere, oraindik orain baserri gehienetan silo edo belar-zuloetan gordetzen dute belarra boletan bildu baino gehiago. Siloak lurlean egiten diren zulo sakonak dira. Segadoraz moztutako bela-

rra traktoraren laguntza silora bota eta zabaldu egiten da, ahalik eta gehien estutuz. Dena plastiko beltzez estaltzen da, gainera zaku edo erroberen gomak edo dena delakoak jartzen dira, pisua- ren pisuaz belarra zapaltzeko. Izan ere, belarra zenbat eta zapalagoa mantendu, are hobeto. Poliki-poliki, belarrak izerditu egin behar du, irekin. Usain fuertea botatzen dute belar-zuloek eta kontu handiz ibili behar izaten da, arnasteko tokia lagaz.

Eguzkiaren onura

Gero, urte osoan zehar ganaduari siloetatik hartutako belarra ematen zaio jaten. Belarra oso fresko mantentzen da, berria izango balitz bezala, biguna, jugosoa eta berde-berdea. Siloetz gain, belar-metak ere sarri ikusten dira baserri inguruetan. Siloetan sartzen ez den belarra pilatu eta eguzkitan lehortzen uzten da. Azken hau ere jaten duten arren, nahiago du ganaduak belar freskoa, siloetan jasotakoa. Horrez gain, belarra zelai batekoa edo bestekoa izan, badago alderik. Zenbat eta eguzkiak gehiago jo, orduan eta goxoagoa da belarra. Ganaduak igartzen dio horri. Are gehiago, toki heze eta eguzkirik gabeko belarra jaten dutenean beheiek, esne gutxiago ematen dute.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

Mandiola S.L. Egurrak
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 909 53 23 83




ALDAPA baserria

Urruzuno auzoan kokatzen da Aldapa baserria. Kotxez abiatu gara bertara, trenbidea gurutzatu, eskonbrera pasatu eta, aldapan gora aurkitzen da. Atarian Ramon eta Juli topatu ditugu, goizeko lehen eguzkiarekin esnatu eta lanean jo eta ke.

Bost anai-arreben artean nagusienaa da Ramon, "maiorazgua nitzan eta baserrixan geratzia tokau jatan. Baina ni gustora. Akaso gaztetan errezo jungo nintzake kalera lanera baina, halere, ez dot uste. Baserrixa eta ganauakin ibiltzia gustatzen jata neri".

Baserritik bizitzea

Aldapatarrak baserritik bizi dira. Gauza benetan zaila gaur egun, "lehen ere ez zan erreza baina oin sekula baino zaila da. Esnia jendiak ez dau nahi izaten, kolesterola dala eta grasa asko dakala eta... Gurelesakuak ere ez dabe gehixegi pagatzen. Eta okelatarako ganauak ere 10-15 urte daruia ixo be, prezio berdian eta batzuetan baitxa bajuauan ere". Euskal labelak izan du onurarik baserritarrentzat, "jendiak karnizerixan labela dakan okelia eskatzen dau eta hori ona da guretzat, baina ez da nahikua". Nola edo hala ateratzen dute bizimodua aurrera. Gustura aritzea abantaila handia da edozein lanbidetan, baita baserrian ere. "Batez ere ganau artian ibiltzia gustatzen jata. Txikitxatik ikusi ditzut txahalak baserrixan jaiotzen eta hazten. Mutil koskorra nitzala heldu nion estreinekoz behi bati sokatik, ixa jolasa zan neretzat. Baserrixan oso gazte tokatzen zan lanian hastia, gurasuei laguntzen".

Txiki, Txatia, Apala...

Aldapan, beste askotan bezala, behiei izena jartzeko ohitura dute, "Txata, Txiki, Apala... Bakoitza zelakua dan, holakoxe izena jartzen diou". Eta, noski, horrenbeste denbora haien artean ematen duenak derrigor kariñoa hartu behar, "saldo edo hazteko eramaten ditzugunian pena haundixa ematen dau. Ganauak ernegaldixak ematen dabe, geure ar-



Pandero eta aho-soinua

Musika zale amorratuak izan dira eta dira oraindik ere aldapatarrak. Nork ez du Juli Zubizarreta ezagutzen? Bere panderoarekin makina bat erromeria girotu eta alaitu ditu han-hemenka. Eta oraindik ere, ahal duen guztietan eskua astindu eta ingurukoak dantzan jartzen ditu. Seme-alabak txikiak zirenean, sukaldean elkartzen zituen eta haiei panderoa jotzen zien, soinu desberdinekin famili artean festa giroa jarriz. Biloba ere panderojolea atera zaio Juliri. Ramon berak ere aho-soinua ondo jotzen du, "batez ere gaztetatn. Auzoko lagunak elakrtu eta zelaira juten ginana, aho-soinua etara eta dantzan ibiltzen ginan, gustura".

.....

tian pasatzen dan bezela, baina gure artian hazitxako animalixak dia eta penia ematen dizu kentziak".

Haritza eta Pagoa ugari zegoen garai batean Euskal Herriko mendietan, baita Elgoibarren ere. Ondo baino hobeto gogoratzen du Ramonek, gaur egun pinua dagoen basoetan nola nagusitzen zen lehen beste zuhaitz mota bat. "Haritza eta pagua zuhaitz ederrak dia eta harek geriza ona ematen zeben, piñuak ez bezela. Piñuak geriza gitxi eta berua ematen dau, haritzana ona eta freskua izaten da. Gainera, piñuak inguruan mamorro gehixo eukitzen dau haritzak baino. Baina, negoziua eitxia nahi bada, piñua sartu biharra dao eta...".

ALDAPA


■ **Auzoa:** Urruzuno

■ **Bizilagunak:** Juli

Zubizarreta, 87 urte eta Ramon Larrañaga, 65 urte, bizi dira baserrian. Baserri alboko etxebizitzan, berriz, Maria Larrañaga, 60 urte, eta Ana Mari Arrieta, 29 urte, bizi dira.

■ **Esplotazioa:** okelatarako 17 buru dituzte eta ortutik ateratakoa etxean kontsumitzen dute. Baserritik bizi dira.

SORALUZE - URKO - SORALUZE



Ibilbidea

- **1** Ermuan hasten da ibilbidea. Santa Ana auzoan kokatzen den anbulategiaren ondoran. Asfaltatutako bidea hartu behar da eta gorantza abiatu, beti ere 123 GR jartzen duten marka gorri eta zuriak jarraituz.
- **2** 40 minutu bidean eman eta gero, Elorreta Behekoa baserri-iristiko gara.
- **3** Goraxeago, asfaltatutako pistaren bukaeran Elorreta goikoa baserria aurkitzen da. Hortik aurrera ondo seinalizatua dagoen lur-pista jarraitu behar da.
- **4** Marka horietatik aldendu gabe berehala iristen da Urko mendira. Halere, marra zuri-gorriek beherantz markatzen duten puntuan norabidea aldatzen badugu, mendiaren beste maldarantz abiatuko gara eta hortik Arratera joan daiteke. Gaurkoan, halere, Arrateko bidea eskuman lagako dugu.
- **5** Urko mendiak 791 m.ko altuera du. Ibilaldiak ordu bat eta hamabost minutu inguruko iraupena du. Mendebaldeko norabidea finkatu eta ibilaldia tontorretik segituko dugu. Bidezidor bat ja-

rraituz mendixka batera iritsiko gara eta bertan, gorantz doan pista hartuko dugu.

- **6** Berehala eskumako bidea hartu eta Hirimugarrera iritsiko gara (721 m.). Hirimugarren, izenak adierazten duen bezala, hiru herriren mugek topo egiten dute: Mallabia, Eibar eta Ermuakoak.

Egindako bidean atzera eginez lehen aipatu dugun mendixkara itzuliko gara. Ondoren, pista jaisteari ekingo diogu eta lehen bidegurutzean dagoen ehiztarien borda pareko bidea eskuman utziko dugu.

- **7** Pista berritik Urkogoiko baserrira ailegatuko gara, guztira 2 orduko ibilbidea eginez. Urkogoiko baserria pasata eskuman dagoen iturrian ura edan daiteke.

■ **8** Ermura bitarteko bidea erraza da, baserriko pista jarraitu besterik ez dago. Errekalderra iristean jolastokia, mahai eta eserlekuak eta igerileku txiki bat daude. Erreka aldeari jarraituz gero, Urko izeneko harrobi-
ra jatsi gaitezke.

- **9** Poliki-poliki Okin-zuri auzoan izango gara, bi ordu t'erdiko ibilaldia egin eta gero irteerako puntura itzuliz.

Kontuan izatekoak

A. Santa Ana auzoaren gainean Artarrai mendia dago (406 m.).

B. Anbulategitik gora doan asfaltatutako pista jarraituz azerizulo bat ikus daiteke. Eskumara dagoen bidezidor estua jarraituz gero, berriz, ur-biltegi bat aurkituko dugu, iturri eta guzti.

C. Elorretan, ezkerreko baserriaren korta erdian Eibar eta Ermuaren arteko muga dago eta eskuineko baserrian taberna.

D. Urko gailurretik Kalamua, Izarraitz eta Arno mendiak ikus daitezke iparraldetik ekialdera. Ekialdetik hegoaldera, berriz, Eibar, Eguarbitza eta Udalaiz aurkitzen dira. Ermua, Durangaldea eta Gorbea hegoaldetik mendebaldera begiraturuz gero ikus ditzakegu eta mendebaldetik iparralderantz, Mendibil, Oiz, Ereñozar eta Iluntzar mendiak.

E. Ogi eta opilak egiten dituzten Mañe baserriaren inguruan izen berbera duen kobazuloa dago. Diotenez, kobazulo honetako urak Deba ibaira isurtzen dira. Kondairaren arabera, aitzuloan hartz bat bizi izan zen eta egun batean, animalia kobazulo barruan harrapatu eta hil zuten. Gaur egun oraindik ere, ihauterietan Hartzaren eguna ospatzen da Ermuan eta koplak batzuk kantatzen dira.

Iturria: Deba Deheko gida turistikoa.

●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Sara Arriola Rementeria
(Maiatzak 21)
- Iker Fernández Azpilikueta
(Maiatzak 23)
- Jon Magro Linares
(Maiatzak 28)

●●●● EZKONTZAK ●●●●

- Angel Mari Rey Fernández eta Encarnación Migales Ordóñez
(Maiatzak 3)
- Kastor Otaegi Aranguren eta Maria Pilar Iranzo Arenas
(Maiatzak 24)
- Ernesto Landa Arregi eta Idoia Baglietto Gandiaga
(Maiatzak 26)
- Manuel Urain Mendikute eta Aidalina Alves Padrao
(Maiatzak 31)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Javier Jorge Alberdi, 39 urte
(Apirilak 30)
- Eleuteria Zabaleta Elorza, 79 urte
(Maiatzak 10)
- Maria Aranberri Irureta, 84 urte
(Maiatzak 15)
- M. Luisa Olalde Agirregomezkorta, 82 urte
(Maiatzak 21)

Martina Compañon Pérez

(1893-1972)



- 1893ko azaroaren 11n jaio zen Errioxako San Vicente de la Sonsierran.
- 8 anai-arrebatik laugarrena zen.
- Gazterik soroetan lan mordoa egin zuen, mando eta zaldiekin.
- 24 urterekin ezkondu zen Gregorio Hervias-ekin eta 10 seme-alaba eduki zituzten; gaur bi bizi dira.
- Ezkondu eta laister Elgoibarrera etorri ziren. Gizonak San Pedroko fabrikan egin zuen lan. Denbora gutxi eman zuen bertan, bizimodua hobetzeko asmoz Frantziara joan baitzen. Senarra meategian hasi zen baina osasunak ez zion gehiegi lagundu eta 2 urte beranduago berriz etorri zen San Pedroko fabrikara.
- Senarra, 1937ko gerratean, Bilbon, Laredon eta Extremaduran preso egon ondoren San Pedroko fabrikara etorri zen berriz.
- Martina alargun geratu zen sasoi onean zegoenean.
- Urte askoan lan egin behar izan zuen familia aurrera ateratzeko. Hau bizimodu latza!
- “De la Cruz-en traperian”, trapuak apartatzen, bagoiak txatarraz betetzen eta interina bezala aritu zen lanean jubilatuta arte. Emakume ikaragarria bera.
- Urte mordo batean Foteroko etxe zaharrean bizi izan ziren, San Roke bailaran. Azken ufalek, 88an, etxea eraman zuten.
- Sinesmen handikoa, Madalako kapila oso gogoko zuen. Baratzean ere lan egiten zuen eta familiakoekin karta jokoan aritzea ere gustatzen zitzaion.
- Istripu batean hil zen 79 urte zituela.

Juanito Gorostiza

Nor ote da?

Joan den asteko “Nor ote da?” lehiaketaren erantzuna **Felisa Mugeruza “Berdun”** da. Asmatu dutenak Ana Maria Mugerza Oria eta Idoia Uriarte Mugerza dira.



I. URTEURRENA

1996ko ekainaren 4an, 74 urte zituela hil zen **TXOMIN LARIZ AGIRREBEÑA “MALTZA”**ren omenez **URTEMEZA** izango da Parrokian, ekainaren 7an, larunbata, arratsaldeko 7etan.
Joan behar duzuenoi eskerrak aldeztetik.





1954koak da eta ixidor Solupek ekarri digu. Bertan Pilar ikastetxeko ikasle ohiak agertzen dira ikasturte amaierako erretratuan.

Ez gara gehiago luzatuko, bestela ez zaizkigu denen izen-abizenak sartuko.

Atzean, ezkerretik hasita: Andres

Ondartza, Miguel Osoro, Alberto Epelde (†), Ansola "Irunaso", Juan Manuel Zubiaurre, Jose Antonio Urbietta eta Juan Jose Lacambra "El Maño".

Bigarren ilaran: Marcos Etxabe, Alberto González, Angel Mari Arriaga, Jose Antonio Alberdi, Angel Mari Zabaleta, Ernesto Etxeberria (†), Federico Armero, Juan Angel García, Ixidor Solupe eta Jose Ignacio Lauzurika.

Hirugarren ilaran: Jose Mari Zubiaurre, Jose Mari Etxaniz, Angel Agirregomezkorta, Juan Manuel San Martin, Rolando Villoslada, Fernando Zubiaurre (†), Javier Usobiaga, Jose Alberto Juaristi, Aurelio Marin, Manolo Santos, Del Valle eta Jose Antonio González.

Laugarren ilaran: Asier Arriola, Rufino Eizagirre, Pérez "Potxolo", Rafa Sarabia, Javier Mendizabal "Mendi", Marcos Arizmendiarieta, Ciriaco Leizabe, Luis Maria Arakistain, Juan Garate eta Rufino Lariz.

Aurrean eserita: Juanito Barrenetxea "Altzate", Migel Angel Galarraga, Jose Ignacio Laskurain, Jose Agirregomezkorta, Txemi Etxeberria, Ignacio Zubiaurre, Jose Angel Riaño, Pako Gurrutxaga, Pedro Mari Mata eta Ramon Mujika.



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI

zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR


Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07

Egoitz Mora, brontzea Espainiako Judo Txapelketan

Xabi González eta Esther Idiakez, Euskadiko judo txapelkunordeak

Egoitz Morak, 14 urteko Ibai Elkarteko judokak, hirugarren postua lortu zuen maiatzaren 28tik 31ra bitartean Melillan jokatu diren 17 urtez azpiko Espainiako Judo Txapelketan. Egoitz ez zegoen hasiera batean domina lortzeko faboritoen artean. Halere, oso ondo aritu zen konbate guztietan. Lehen borrokaldian, Murtziako selekzioko aurkaria izan zuen aurrez aurre eta ez zuen inolako arazorik eduki irabazteko. Minutu batzuk geoago, Valentziako ordezkariekin neurtu zituen indarrak, eta hortxe igarri zen bere gaztetasuna eta esperientzia falta, izan ere, lehiaketa osoan aurretik joan ondoren, bukaeran, galdtu egin baitzuen. Halere, Valentziako aurkaria finalera iritsi zenez, Egoitzek errepeksara pasatu, eta hirugarren posturako lehiatu ahal izan zuen. Finaleko lehen konbatean arazorik gabe irabazi zuen, lortu daitekeen puntu kopururik altuenarekin. Ondorengo konbatea, bai

eta hirugarrena ere, irabazi egin zituen eta brontzeko domina eskuratu zuen. Irabazitako 4 konbateekin, Egoitzek



Eskuman, Egoitz Mora brontzeko domina jaso ondoren.

dagoeneko pasatu du gerriko beltzari dagokion 1. dan-a lortzeko kompetizio-proba.

Bestetik, ekainaren 1ean Xabi González-ek eta Esther Idiakez-ek Legazpin izan zen Eskolarteko Infantilen Judo Txapelketan parte hartu zuten eta biek finalerako sailkatzea lortu zuten. Azken borrokaldian zilarrezko domina eskuratu zuten, bakoitzak bere kategorian.

10 domina Azpeitian

Maiatzaren 31n, Azpeitian jokatu zen alebin, kadete, infantil eta jubenil mailako judo torneoan, Ibai Elkarteko judoek hainbat domina eskuratu zituzten. Urrezkoa Gorka Garate, Aitor Mugerza eta Ana Estevez-ek. Zilarrezkoa Josu Tellabide, Aitor González, Borja Ortiz eta Alberto Fernández-ek. Azkenik, brontzekoa Josu Idiakez, Eki Unanue eta Jon Ander Pascualentzat izan zen.

K I R O L A L B I S T E A K

● **Atletismo jaialdia eta eskolarteko jokoan sari banaketa**

Bihar, hilak 7, atletismo jaialdia egingo da Mintxetan eskolarteko jokoan barruan. Goizeko 9:30etan hasiko dira lasterketak Pilar, Ikastola, Herri Eskola, Mendaroko Ikastola eta Herri Institutuko ikasleen partaidetzarekin. Benjaminak 60m., 150m. eta erreleboetan arituko dira. Erreleboen frogan Ikastolako, Pilarreko eta Herri Eskolako taldeek hartuko dute parte. Alebinek 600 m., altura eta luzera jauzia egingo dituzte eta azkenik infantilek, 800m., 200m. eta pisu jaurtiketa. Atletismo jardunaldiaren ostean eskolarteko jokoan sari banaketa ekitaldia hasiko da.

● **Futbito finalak atzeratu egin dira**

Urasandiko Futbito Txapelketako arduradunek Kopako eta Ligako finaleko partiduak dataz atzeratu egin dituzte. Joan den larunbaterako iragarrita bazuden ere, igandean, hilak 8, jokatuko dira Kiroldegian. Goizeko 11etan Kopako finala jokatuko dute Sporting Braga eta Menisco taldeek eta eguerdiko 12etan, Orbela eta Karkis Ligako txapelaren bila arituko dira.

Ander Zulaika mendarotarra nagusitzen kadeteen txirrindulari lasterketan

Joan den zapatuan, Elgoibarko Lagun Taldeak antolatutako "VIII. Txirrindulari Saria" lasterketan, kadete mailako 93 txirrindularik hartu zuten parte, tartean, Elgoibarko Lagun Taldeko Ciclos Iturriagakoek. Plazatik irten eta 60 km.ko ibilbidea egin zuten 11:30ak aldera tropelean iritsi ziren txi-


rindulariak Mintxetako helmugara, sprintean Ander Zulaika mendarotar gaztea nagusitu zelarik 1h26'01"ko denborarekin. Josu Mancha eta David Rodriguez elgoibartarrak ere tropelean sartu ziren irabazlearen denbora berdinarekin. Imanol Calleja eta Egoitz Mendikute erretiratu egin ziren.



Ezkerrekoa Ander Zulaika da, irabazlea. Eskuman, lehen elgoibartarra, Josu Mancha.

Modesto Mujika zena omendu zuten Finalista Egunean

Domeka goiza iluna eta euritsua esnatu zen arren, dozenaka lagun hurbildu zen San Pedrorra Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatutako Finalista Egunean parte hartzeko asmoz. Morkaikora igotzera mendizale gutxi animatu bazen ere, goizeko 10:30etako mezara jende ugari hurreratu zen. Mezaren ostean, Morkaikoko zuzendaritzaren izenean, Modesto Mujika zenaren omenez, plaka bat eman zioten Modestoren alargunari, Arantza Larrañagari. Omenaldian, Haritz Dantzari Taldekoek aurrerakua dantzatu zuten eta Txistulariek Modestoren erretratu bat eman zioten alargunari. Une hunkigarrien ostean, eguerdiko lean mendizaleei dominak banatu zitzaizkien. 10 mendi egin dituztenen artean 28 domina banatu ziren. 15 mendiren sailean 11 neska-mutilek jaso zuten domina eta 20 mendirekin 17 elgoibartarrek. Azkenik, 20.000 metroko alturako atalean, 25 mendizalari eman zitzaien domina eta 40.000 metroekin, mendi-



Goian, J.P. Uriguen, J.C. Etxeberria, Modesto Mujikaren alarguna eta Pako Iriondo. Behean, domina jaso zuten haurrak sari banaketaren ostean.

zale bakarra zegoen, Juan Carlos Etxeberria.

Euria zela-eta mendizale askok herrira jaitea erabaki zuen baina hala ere, 60 bat lagun elkartu ziren San Pedroko jatetxean izan zen bazkarian.

Arratsalde partera, eguzki errainuak azaltzen joan ziren heinean eta Arantza eta Ekaitz trikitilariek lagunduta, giroa animatzen joan zen eta bolo tiraldirik ere izan zen San Pedroko bolatokian.

70 haur igeriketa jaialdian

Pasan den larunbatean, goizeko 10etatik ordu bat arte, Kiroldegiko igerilekuan igeriketa jaialdia egin zen eskolarteko jokoetan parte hartzen duten haurrei zuzendua. Benjaminetan 45 neska-mutilek hartu zuten parte eta alebin eta infantiletan 25ek. Begirale modura zazpi lagunek jardun zuten.



Monitoreek demaseko lana izan zuten igerilekuan bildu ziren 70 haurrak dominatzen.

EMAITZAK

Futbola

Haundi 5 - Fraga 0

Pala Txapelketa

Finalerdiak:

R. Rico/Elkoro 35 - Urigoitia/De la Mata 34

F. Rico/Aranegi 35 - Bergua/Gurrutxaga 30

Pilota Lagunak Txapelketa

Benjaminak (Banakakoa)

Maiatzaren 30eko jardunaldia

Oñederra 18 - Arrizabalaga 8

Astarloa 18 - Loiola 15

Alebinak (Banakakoa)

Maiatzaren 30eko jardunaldia

Rodríguez 13 - Gorriti 18

Gasteain 18 - Mugeza 8

Ekainaren 2ko jardunaldia

Rodríguez 14 - Mugerza 18

Membrillera 8 - Iriondo 18

Leñ 9 - Gorriti 18

Alebinak (Binakakoa)

Ekinaren 1eko jardunaldia

Elgoibar B 18 - Azpeitia A 8

Elgoibar A 17 - Lizartza 18

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 7

15:15 Aurrera - Aldapetarrak (1. jub.)

17:00 Eibartarrak - Irun (2. kad.)

Futbitoa, Kiroldegian

Igandea, 8 (Finalak)

11:00 S. Braga - Menisco (Kopa)

12:00 Orbela - Karkis (Liga)

Sigmako Pilota Txapelketa

Asteartea, 10

19:30 Beraza/Loidi - Olaso/Lazarobeitia

Txurruka/Leiaristi - Olabe/Angel

Osteguna, 12

19:30 Lendinez/Osoro - Perea/Arrillaga

Panizo/Julian - Karral/Katei

I. Pala Txapelketa, Ikastolan

Ostirala, 6

3. eta 4. postuak:

22:00 Urigoitia/Mancebo - Bergua/Gurrutxaga

Finala:

22:30 F.Rico/Aranegi - R.Rico/Elkoro

Pilota, Plaza Handian

Lagunak Txapelketa

Igandea, 8

11:00 Elgoibar A - Azpeitia B

Elgoibar B - Zaldibia

I. Tenis Txapelketa

Larunbata, 7 (Finalerdiak)

12:00 Gorka Merino - Nicolas Berbel

13:00 Fernando Rico - Abel Hernúndez

Eskolarteko Jokoak, Mintxetan

Larunbata, 7

9:30 Atletismoa

12:00 Sari banaketa

**HONEKIN
GATOZ!!!****ORAIN, astebete
leku hauetan:****MALLORCA**Dali hotela - 3★PE
40.900 pta.

Bidaialagunak:

%50eko beherapena

GRAN CANARIA**HEGOALDEA**Rio Sol hotela - 3★PE
64.900 pta.**LANZAROTE**

(ezkongaiantzat)

Beatriz hotela - 4★PE
72.600 pta.**LANZAROTE**

(45 urtetik gorakoentzat)

Lancelot hotela - 3★PO
61.100 pta.**LANZAROTE -****TENERIFE** (2 aste)Goya/Miramar hotela - 3★PO
91.900 pta.**LONDRES** (3 gau)Tavistock H.- 1go maila OG
57.600 pta.

Royal National hotela -

1go maila OG
58.000 pta.**ERROMA** (3 egun)Tempio hotela - 3★OG
56.900 pta.Napoleon hotela - 4★OG
67.500 pta.**ESTANBUL** (astebete)Hotelak - 3★OG
65.500 pta.**CARTAGENA DE****INDIAS** (astebete)Capilla hotela - 4★OG
123.900 pta.

*PE: pentsio erdia

*PO: pentsio osoa

*OG: ostatua + gosaria

ETA HAUEZ GAIN:

Thailandia, Egipto,

Cancun, Santo

Domingo, New York,

Txina, Kalifornia, Brasil,

Argentina, Kanada...

**Dudarik gabe,
hemendik aurrera,
zatoz gure bulegora:**Foruen Plaza, 3 Elgoibar
Tel: 74 39 12**“Kafe Usainean” irailan
bueltatuko da berriz**

Elgoibarko Izarrakoek esan digutenez, “Kafe Usainean” egitasmoaren azken saioa izan da maiatzekoa. Lehen hiru saioak gauzatu ondoren, oso balorazio positiboa egin dute eta irailan berriz ere hasiko dira saio berriekin. Urtea amaitu bitartean beste hiru emanaldi egingo dituztela aipatu digute.

Maiatzeko azken ostiralean izan zen hirugarren saioa eta erretratuan ikus daitekeen bezala, musika eta hitzak izan ziren protagonistak. Musikari dagokionean, 5 instrumentu eta 7 musikari izan ziren. Hitzei dagokienez, berriz, Iñaki Odriozolak “Imajina Ezazu Euskadi” lehiaketan irabazle suertatu ziren poesiak errezitatu zituen Kultur Etxeko sotora hurreratu ziren 85 lagunengana.



Susana Markano eta Ane Zubia pianoan eta Alberto Iriondo klarinetea jotzen.



Iñaki Odriozolak “Imajina Ezazu Euskadi” lehiaketako poesia irabazleak errezitatu zituen.

**Mauxitxa txaranga Galizian egon da
jotzen Allariz herriko jaietan**

Mauxitxa txaranga-ko 17 kide Galizia aldera abiatu ziren joan den maiatzaren 30ean Allariz herriko jai ba-

tzordeak deituta. Galiziako herri honetan jaiak ospatzen zituzten eta Mauxitxakoei kalejiretan jotzeko deitu zieten. Asteburu osoan lau

kalejiratan jo zuten elgoibartarrek, larunbat goiz eta arratsaldean eta igandean ere berdin. “Al Aguacil” eta horrelakoak ere jo omen zizutela esan digu “Mauxitxa”k. “Zapatu arratsaldeko kalejiria hemengo Txiki egunekua bezelakua izan zan eta ederki pasau gendun, San Bartolomeiak aurreratu bazian bezela”. Galiziara joaten diren lehen aldia bada ere, iaz egon omen zen kontakturik elgoibartarrek hara joateko. Mauxitxa txarangaren hurrengo konpromezua uztailearen 12an da Amañako jaietan.



Delineazioa

N O R A R O D R I G U E Z

Nora Rodriguezek 20 urte ditu eta aurten amaituko ditu Delineazio ikasketak IMHn. Marrazketa beti gustatu izan zaio eta batxilergo teknologikoa bukatu zuenean, Arte Ederrak ikastea pasatu zitzaion burutik. Halere, lau urtez unibertsitatean egoteko gogo gehiegirik ez zuela eta, modulo 3 egitea aproposagoa iruditu zitzaion. Ez du batere damurik, oso gustura dago hartutako erabakiarekin.

- Imaginatzen zenuena al da delineazioa?

- Gutxi gora-behera banekien zein ikasketa mota ziren. Batxilergo teknologikoa ikasi nuen eta delineazioari zuzendua zegoenez, banuen gutxi gora-beherako bat. Halere, sekula ez da zuk hasieran uste bezalakoa.

- Teoria eta praktika. Biak tartekatzen dituzue, ez? - Bai, eguneko 6 ordu dira, goizeko 8etatik eguerdiko 2etara. Ordu horietan teoria eta praktika tartekatzen dira. Izan ere, IMHk tailerra dauka eta hori aprobetxatzen dugu teoriarik ikasitakoa praktikan lantzeko. Ez da batere astuna egiten. Halere, egunean eraman behar duzu dena eta denbora dedikatu behar diozu.

- Zer da delineazioa? - Makinak diseinatzea. Enpresa batean duten behararen arabera, delineanteari makina konkretu bat diseninatzeko eskatzen diote eta zuk makina horren ezaugarriak aztertu eta funtzionatzen jarri behar duzu.

- Gizonezkoen mundua izaten jarraitzen al du? - Oraindik bai. Nire gelan 22 gara guztira eta horietatik 5 bakarrik neskek. Nik uste dut neskek oraindik ez dutela euren burua arlo honetan ikusten, beharbada lan munduan aukera gutxiago emango digutela uste dutelako. Halere, iaz delineazioa amaitu zuten neska guztiak lanean daude. Aukerak baditugu.

- Enpresetan praktikak egiten al dituzue? - Bai, bi hilabeteko iraupena izaten dute eta ondo etortzen da. Suposatzen da ikasi duzunarekin lotutako gauzetan jarduten duzula.

- Proiekturik egin al duzue? - Bai, banaka eta taldeka. Bigarren ebaluazioan banaka eta hirugarrenean taldeka. Bakoitzak eginiko proiektuak bes-

teenekin enjatu b funtzionamenduan.

- Azterketek gain, izaten duzue. - Batena du eta ikasgai dizkizute. Gainera diseinua egin beharrez gain, barrutik eginda, nola funtzionatzen duen... dena azalduzu.

- Zein asmo aurrerikoa? - Lanik aurrerik ez badut, injinerut bat ikasiko dut IMHn. Aukera onak da goizez ikasi eta ataldez enpresa bat aritzeko. IMHn gure egon naiz, talde txiki dira eta irakasleek harremana oso estua, pertsonala.



GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK

- ☞ Zura
- ☞ Barne-merkataritzako laguntzailea
- ☞ Erreminta-makinen eragilea
- ☞ Mekanizatu bidezko produkzioa
- ☞ Administrazioa eta finantzak
- ☞ Idazkaritza
- ☞ Merkataritza-kudeaketa eta marketina
- ☞ Nazioarteko merkataritza
- ☞ Telekomunikabide eta informatika sistemak
- ☞ Eraikin instalakuntzak mantendu eta jartzea
- ☞ Ingurugiro kimika
- ☞ Proiektu mekanikoen garapena
- ☞ Ore eta papergintza industria
- ☞ Industri-ekipoaren mantenua
- ☞ Garraioaren kudeaketa
- ☞ Aplikazio informatikoen garapena
- ☞ Instalazio elektronikoen garapena
- ☞ Obren burutzapena eta planoak
- ☞ Produktu elektronikoen garapena
- ☞ Erregulazio eta kontrol automatikoen sistemak

MARTXAN JARRIKO DIREN BERRIAK Erdi mailakoak

- ☞ Kimikagintza langilea
- ☞ Ore eta papergintza langilea
- ☞ Plastikoa eta kautxo eraldatzeko langilea
- ☞ Eraikuntza materiala erabili eta mantendu
- ☞ Igeltzeritza
- ☞ Jantzigintza
- ☞ Neurrirako fabrikazioa eta zurgintza eta latzari instalakuntza
- ☞ Soldadura eta galdaragintza

- ☞ Mekanikazioa
- ☞ Merkataritza
- ☞ Administrazio-kudeaketa
- ☞ Arte-grafikoetako aurreinprimaketa
- ☞ Erizain laguntzailea
- ☞ Dekorazio-estetika pertsonala
- ☞ Landa ingurunean gorputz eta kirol ekintzak gidatzea
- ☞ Barazki, haragi eta arrain kontserbagintza
- ☞ Lorazantza

Goi maila

- ☞ Kimikagintza
- ☞ Análisis eta kontrola
- ☞ Ingurugiro-kimika
- ☞ Bidaia agentziak
- ☞ Turismo-informazio eta merkataritza
- ☞ Hirigintza proiektuak eta topografia lanak garatzea
- ☞ Zurgintza eta altzarigintza
- ☞ Kontsumitzailearen zerbitzuak
- ☞ Nazioarteko merkataritza
- ☞ Argitalpen diseinua eta produkzioa
- ☞ Dietetika
- ☞ Diagnosi klinikoen laborategia
- ☞ Instalazio elektroteknikoak
- ☞ Estetika
- ☞ Gizarte eta kultur animazioa

OHARRA

Hauek gain, mailaertaineko ikasketak eta modulo II eta II ere badaude. Informazio gehiago nahi duenak, Herri Institutuko orientazio departamentura jo dezake.

INTERESEKO

OSASUNA

- Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.Y.A (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

- Euskara Zerbitzua 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

- Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

- San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

- Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 L.H.I. 74 44 80
 Pílar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

- BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo EspaDol 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki Irratia 74 34 74

6 ostirala

16:00:16:45-17:30
**ELIZAKO OBREN
 ERAKUSTALDI
 GIDATUA**

22:30 **ANTZERKIA**
 Taldea: "La pera limonera"
 Antzezlanak: "Quo no vadis"
 Herriko Antzokian

7 larunbata

11:00 **SAN
 BARTOLOMEAK
 ANTOLATZEKO
 BILERA**
 Kultur Etxean

10:00-11:00-12:00
**ELIZAKO OBREN
 ERAKUSTALDI
 GIDATUA**

16:00:16:45-17:30
**ELIZAKO OBREN
 ERAKUSTALDI
 GIDATUA**

19:30-22:15 **ZINEA**
 "Michael Collins"

8 igandea

11:30 **ELIZAREN
 INAUGURAZIOKO
 MEZA**
 Setien gotzainaren partaidetzarekin Parrokian

16:30 **GELATXOREN
 DANTZALDIA**
 Plaza Handian

19:30-22 **15 ZINEA**
 "Michael Collins"

9 astelehena

19:00 **HITZALDIA**
 Gaia: Ondo jatea
 Hizlaria: Almudena Pérez dietista
 Kultur Etxean
 Antolatzailea: Haizea
 Emakume Taldea

22:15 **ZINEA**
 "Michael Collins"

12 osteguna

19:00 **HITZALDIA**
 Gaia: Ariketa fisikoen garrantzia
 Hizlaria: Itsaso Fernández
 Kultur Etxean
 Antolatzailea: Haizea
 Emakume Taldea

22:00 **HIRUTRUKU-
 REN KONTZERTUA**
 Herriko Antzokian
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

13 ostirala

22:15 **ZINEA**
 "El Santo"

ZINEA



Michael Collins

Michael Collins mende hasieran Irlandan jaiotako iraultzaile bat da. 1916an, Pazkoko Iraultza egunean, Collins eta bere lagun Harry Boland gartzelaratu egiten dituzte. Gartzelatik irten ondoren, Collins eta bere laguna, Irlandako iraultzaren buruzagi bihurtuko dira. Britainia Handiko ejerzitoaren aurkako borroka politiko eta militarrean buru-belarri sartzen da eta "Irlandako Boluntarioak" izeneko ejerzito sekretua sortuko du. Pelikula eta aktore onenaren sariak irabazi zituen filme honek Venecia-ko LIII. Zinemaldian.

Zuzendaria: Neil Jordan
 Antzezleak: Liam Neeson,
 Juali Roberts, Aidan Quinn.

TXAN- DAK

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
7	Etxeberria*	Anduaga
8	Etxeberria*	Anduaga
9	Yudego	Anduaga
10	Bidasolo	Zabaleta
11	Etxeberria	Etxeberria
12	Bidasolo	Escala
13	Yudego	Yudego

*(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 75 16 38

ANDUAGA: Mendarozabal, 1
Garagarza. Tel: 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

8 igandea **Fotero**

● San Bartolome jaiak antolatzenko bilera

San Bartolome jaiak prestatzeko bilerarako deialdia luzatu du Udal Kultur Batzordeak. Bilera hilaren 7an, larunbata, izango da goizeko 11etan Kultur Etxean. Herritar guztiei bileran parte hartzeko deia egiten zaie.

● Setien gotzaina, Elizako lanen inaugurazioan

Elgoibarko San Bartolome Parrokiako Elkarteak elizaren berreraikuntzaren lehen eta bigarren faseko lanen inaugurazioa egingo du igandean. Goizeko 11:30etan Eukaristia ospatuko da Jose Maria Setien gotzainaren gidaritzapean. Mezaren ostean luntxa izango da Biar-Dana elkartearen.



● "Quo No Vadis" antzelana, gaur, hilak 6, Herriko Antzokian

"La pera llimonera" Bartzelonako antzeztaldearen azken produkzioa da gaur, gaueko 20:30etan, Herriko Antzokian taularatuko dena, "Quo no vadis" izenekoa. Klown eta juglaren munduan oinarritutako ikuskizun alai eta dibertigarria da. Hitz-joko eta lengoaia errazaren bidez adin guztietako ikuslegoarengana iristea lortzen dute. Aktoreak Pere Casanovas eta Pere Romagosa dira eta zuzendaria Toni Albá. Sarreraren zenbatekoa 500 pta.koa da.

Antzeztoki batean lanean dabiltzan bi pintorek istorio bat sortzen dute antzokiko atrezzo aeta euren lantresnak erabiliz. Erromako enperadoreak, Julio Cesar-ek, Egipto menperatu nahi du. Horretarako Marco Antonio bidaliko du. Cleopatrari edari majiko bat eman eta honek memoria galduko du. Hartara, Marco Antoniok Egipto menperatu ahal izango du behin-betiko. Antzelanak 65 minutuko iraupena dauka.



OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

(943) 20 35 15 ● ABERIAK (943) 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

POL-POL

T A B E R N A

San Bartolome, 19 - Tel. 74 08 74 - ELGOIBAR

OLASO TABERNA

Olaso industrialdea, 15
Tel: 74 31 85

?EGUNEROKO MENUAK?
?LARUNBATETAN?
Rabak ¥ Olagarroa ¥ Fritoak
?GAUEZ?
Menu ekonomikoak eta plater konbinatuak

¥ Meriendak, haurrentzako meriendak, afariak, luntxak, banketeak...
¥ Enkarguak egiteko aurrez deitu
ESKA EZAZU AURREKONTUA
INOLAKO KONPROMEZURIK GABE!
Ordutegia*stelehenetik ostiralera 7:00?22:30
Larunbatetan 9:00tik aurrera

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Aukera interesgarria: Benecchi Superligera eskopeta saltzen da. Oso ondo zainduta dago. Bi urteko garantia eta estrak. ☎ 74 03 92 (Dani)
- ◆ Peugeot SRD salgai. Merkea. Honda 500 VFR motorra (berria). ☎ 907 84 40 54 (Unai)
- ◆ Poliesterrezko Yamaha itsasuntzia salgai. 4 zaldiko motorra. 4,50ko luzera eta 1,50ko manga. ☎ 19 13 07
- ◆ Opel Kadet diesela saltzen dut. 150.000 pta. Tel: ☎ 74 23 67
- ◆ Mendaroko Irrintzi liburudenda traspasatzen dut. ☎ 75 61 53
- ◆ 1'40x2'00 m-ko sofa-oheta salgai. Estreinatuta gabe. Prezio erdian. ☎ 19 25 91 (Javier)
- ◆ Logela baterako altzariak salgai: ohea, mesanotxea, hiru ateko armairua, eskritorioa eta estanteriak. Berriak ☎ 74 12 85

◆ EROSI ◆

- ◆ Land Rover motza erosiko nuke. ☎ 74 41 77 (20:00-21:00)

Etxebizitzak

- ◆ Alcoceber-en apartamentua alokatzen da uztaile eta irailean. ☎ 74 22 08
- ◆ Torreviejan apartamentua alokatzen dut. (Ekaina eta iraila). ☎ 74 24 50
- ◆ Bungalow-a alokatzen dut Santa Polan udan, uztailean izan ezik. ☎ 74 12 13 (Carmen, gaeuz)
- ◆ Jakan apartamentua alokatzen da. (Membriллерas-en) ☎ 74 20 31
- ◆ Benidorm-en apartamentua alokeran. Hondartzako lehen ilaran. ☎ 74 20 31
- ◆ 3 logelako eta amoblaturako dagoen etxe bat alokatu nahi da, irailetik aurrera. ☎ 72 20 03 (Ainhua. Asteburuetan deitu)
- ◆ Pisua salgai Pedro Muguruzan. ☎ 74 04 56 (Maria)
- ◆ Etxea saltzen dut Santa Ana 10-4n. ☎ 75 62 34
- ◆ Maiatzetik irailera bitartean etxea alokatzen dut Jakan. ☎ 74 15 22
- ◆ Donostian (Paseo Rondan) pisua alokatzeko daukat. ☎ 74 18 34
- ◆ Ekainetik aurrera apartamentua alokatzen da Benidormen Levante-ko hondartzako lehen ilaran. Garbigailua, TB, igerilekua, parking-a. ☎ 74 20 31

Lana

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Esperientziaduna eta euskararekin. ☎ 19 21 28 (Asun, asteburuetan)
- ◆ Neska eskaintzen da umeak zaindu edo bestelako lanak egiteko. ☎ 74 18 68
- ◆ Ileapaintzaile titulodun neska eskaintzen da umeak zaintzeko. ☎ 74 22 91 (Cristina)
- ◆ Neska batek haurrak eta etxeko lanak egingo lituzke. Euskalduna eta esperientziarekin. ☎ 74 31 88 (Amaia. Goizez)
- ◆ 18 urteko neska sukaldeko lanak edo garbitasuna egingo luke. ☎ 74 36 38 (Arantza)
- ◆ Umeak zainduko nituzke egun osoan edo orduka. Neska euskalduna esperientziarekin. ☎ 74 34 99 (Eulali)

Partikularrak

- ◆ Fisika eta matematika klase partikularrak ematen ditut. ☎ 74 13 34 (Andoni)
- ◆ Frantses klaseak ematen ditut. Ikastaro trinkoa uztailean. ☎ 74 04 59
- ◆ LOGSE batxilergoko marrazketa eta arkitektura eta injinerutza has-teko oinarriko marrazketa emango ditut uztailean. ☎ 74 03 74
- ◆ Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. ☎ 74 09 72 Garikoitz
- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ 74 21 65 Javi

Bestelakoak

- ◆ San Frantzisko iturrian ume baten txaketa urdin bat topatu nuen duela bi aste. Udaltzaingora eramandu. ☎ 74 21 40
- ◆ Gonak josten dira beste bat neurri ekarrita. ☎ 74 21 40
- ◆ Caritas-ek garbigailua behar du eta salarako armairu bat. ☎ 74 15 09/74 12 57
- ◆ Urrezko belarritako bat topatu nuen Urasandin, Galiziarren jailetan. ☎ 74 22 08 (M.Dolores)

Garajeak

- ◆ Trenbide kalean garajea salgai. Oso handia da, errulota edo bi kotxe sartzeko beste. Sobrepisoa dauka. ☎ 74 01 33
- ◆ Urasandin garaje itxia saltzen da. ☎ 74 08 63
- ◆ Garaje itxia salgai Arregitorren. ☎ 75 51 77
- ◆ Urasandin garajea dut alokatzeko. Marraduna. ☎ 74 31 07
- ◆ Garajea salgai Juan Mugerza kalean. ☎ 74 12 04 (20:00-22:00)
- ◆ Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 12 53
- ◆ Garaje bat salgai Leku-Ederreko 4. solairuan. (9etatik 13etara) ☎ 74 32 04

Agurak



◆ Zorionak **Julen Esnaolari** gaur, hilak 6, 13 urte bete dituelako. Bere aitona, guraso eta anaia Ikerren partez.



◆ Supermegaul-trapulus zorionak **Janire Eguren** gaur, ostirala, bere urtebetzea delako. Zorionak Jonatan eta Larraitzen partez gaur 11 metro gehiago egiten dituelako.

◆ Zorionak **Joakin Aceitoni** hilaren 3an urteak bete zituelako. Familiaren partez.

◆ **Nere neska kutunei.** Zuek ezagutzea maitatzea da. Zorionak. Omaita.



◆ Zorionak **Maiteri** eta musu handi-handi bat. BAMBK.


◆ Zorionak **Remen** eta **Amaia**ri. Batak 18 (+10) eta besteak 13 (+12). A zer txabalita pare! Ez ote da behintzat inor adin txikiak esplotatzen ditugula salatzeri etorriko! San Pedron luntx eder bat ordaintzeko beste edade badaukazue eta, gaitzerdi!. Mariaze, Abel, Txino, Kurnax, Pantxi, Lolo eta Miren.

Agurak

◆ Zorionak **Marisa** eta **Jesusi** ekainaren 10ean zilarrezko ez-taiak egiten dituzelako eta beste 25 urtean jarrai dezazuela. Inigo eta Iosuren partez.



◆ Ekainaren 11n urteak beteko dituen **Ainarari** zorionak Iosu, Juli eta Mikelen partez.




◆ Mila kilo zorion **Olatz Gil Epelderi** bihar, hilak 7, 7 urte beteko dituelako. Besarkada eta musu handi bat eta ondo pasa dezala bere familiaren partez, batez ere aita, ama eta ahizpa Nerearen partez.




◆ Zorionak **Ivonne Gutierrez** ekainaren 6an 15 urte betetzen dituelako. Bihotz-bihotzez G.L eta kuadrilaren partez.

◆ Kaixo! Ni naiz. Zorionak. **Veronic, Ivon, Fefa.**

◆ Zorionak **Veronica** eta **Ivonnari** ahizpa Sally eta Donnaren partez. Musu handi bat.



◆ Zorionak **Angel Chicori** emazte eta **Adrian** eta **Oihana** seme-alaben partez.



◆ Zorionak **Jesica Garcia Bragadori** zapatuan, hilak 7, 15 urte beteko dituelako. Anaia Jonatan eta gurasoen partez.



San bartolome, 10
Tel: 74 37 34

ikus



BEGIEN BABESERAKO KANPAINA
Onura publikoko elkartea

OPTIKA



EGUZKITARAKO BETAURREKOEI BURUZKO INFORMAZIOA

Badakigu begiko parte guztiek jasan ditzaketela eguzki-erradiazioaren kalteak, bereziki izpi ultrabioletarenak. **OZONO**-geruzak izpi ultrabioletak mozten ditu.

Halere, Espainian ozono-geruza %10ean txikitu da, eta eguzki izpiek (ultrabioletak, infragorriak,...) kataratak, erretinaren lesioak, konjuntibitisa etab. eragin ditzakete begietan.

Dudarik gabe, eguzkiarengandik babesteko lenteek ez die erradiazioari sartzen utzi behar. Filtrorik ez duten eguzkitarako betaurrekoek, aldiz, begira sartzen den argi kantitatea gutxitzen dute, pupila dilatatuz, eta horrela izpi kaltegarriak begira errazago sartzen dira, begiko lesioak errazago sortzen direlarik.



IKUS OPTIKAN,
GURE EGUZKITAKO
BETAURREKOEK
LEGEAK ESKATZEN
DITUEN ARAUAK
BETETZEN DITUZTELA
GARANTIZATZEN
DUGU.

4. URTEMUGAN eskerrak eman nahi dizkizuegu bezero guztioi gugan jarritako konfidantzarengaitik



hiru truku

ELGOIBAR

eKaiNaK 12, oSTeGuNa

HeRRiKo aNTZoKiaN

22:00 eTaN

aNToLaTZaiLea



El goi bar ko

LaGuNTZaiLeaK

